

## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

Ordizian, **2018ko maiatzaren 3an**, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen **UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN**, honakoak bertaratu zirelarik:

### **BERTARATUAK:**

#### **LEHENDAKARIA:**

José Miguel Santamaría Ezeiza jauna

#### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Joseba Aranburu Gauzarin	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako EH Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako EH Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako EH Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi	Ordiziako EH Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako EH Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesús Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos

#### **IDAZKARIA:**

Lide Gurrutxaga Urbietta anderea


#### **KONTU-HARTZAILEA:**

Mikel Zubizarreta Elicegui jauna

### **EGUNEKO GAI-ORDENA**

#### **EGUNEKO GAIEN ZERRENDIA:**

- 1.- 2018ko martxoaren 22an egindako Osoko Bilkurako akta onartzea.
- 2.- Martxoko Alkatezako dekretuen berri ematea.
- 3.- kontu-hartzaileak apirileko kontratuei dagozkien ingeren berri ematea.
- 4.- Ordiziako PSE-EE (PSOE)k aurkeztutako mozioa, genero indarkeriaren aurka estatuko itunean jasotako neurriei buruzkoa.
- 5.- "DUINTASUNA" Gipuzkoako Jubilatutako eta Pentsiodunen elkartearen proposamena, pentsioei buruzkoa.
- 6.- Gizarte Zerbitzuen Sailak Oinarrizko gizarte zerbitzuei buruz egindako proposamena, Alkatezari eskatuz GOIEKI S.A.-ri zuzendutako idatziarekin bat egin dezala.
- 7.- Udaletxearen aurrekontu aldaketa 2017ko ekitaldia itxi aurretik.
- 8.- 2018ko Plantilla Organikoaren hasierako onarpena.



## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

- 9.- 2018ko Lanpostuen Zerrendaren hasierako onarpena.
- 10.- GOIERRIKO NEZAKAL KOOPek egindako obregatik EIOZren hobaria.
- 11.- San Jose Egoitzako eraikinaren eta lursail publikoen desafektazioaren hasierako onarpena.
- 12.- Diru-sarrerak Bermatzeko eta jendarte inklusiorako udal-laguntzen Araudiaren hasierako onarpena.
- 14.- Arana 6 HIEko a.20.6.1. lursailaren Plan Bereziaren behin betiko onarpena.
- 14.- Filipinak kalean, 6. zenbakian, dagoen orubea eta eraikina besterentzeko baldintza ekonomiko-administratiboan agiria.

### **PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:**

- 1.- Presazko izaera duten inbertsioen aurrekontu aldaketa 2018rako.

### **GALDE-ESKAERETAN AZTERTUTAKO GAIAK**


### **GORABEHERAK**

### **ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 19:00etan**

**AMAIERA ORDUA: 21:20ean**





Lehendakariak hasiera eman dio bilkurari, gai-zerrendako lehen puntuaren berri emanez.

**1.- 2018ko martxoaren 22an egindako ohiko bilkurako akta onartzea.**

Proposamena

**2018ko martxoaren 22ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: Bat ere ez.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Hortaz, Lehendakari jaunak akta aho batez onartutzat eman du.**



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

**2.- Martxoko Alkatetzako dekretuen berri ematea**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Ezenarro jaunak

“Gai puntualak” B18/0286. dekretuari buruzko informazioa eskatzen du.

Sukia andreak


“P-21ean igogailua jartzea” B18/0225. dekretuari buruz galdetzen du.

Alkate jaunak informazioa eman die.


**Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean geratu da.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

**3.- kontu-hartzaileak apirileko kontratuen gainean egindako ingerak.****KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA ( 04/2018):****AURREKARIAK:****Kontu-hartzaileari, honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritza sailetik:**

Sozietatearen izena	Kontratuaren xedea	Kontratua	Betearazte epea	Luzapenak	Kontratuaren prezioa	2016an gastatuta
Gesmunpal	Nahitaezko diru-bilketa	03/11/2003	03/11/2007	---	Aldakorra	30.943,58
Juan M. Garmendia Amundarain	Kultur Etxeko atezaina	15/04/1986	Mugagabea	Urtez urteko luzapena	Zenbatekoa 2016an: hileroko 2.948,84 + BEZ	42.817,20
Landarri S.L.	Hilerriko zerbitzua	10/03/2005	10 urte 2015/03/10	Dekretu bidezko luzapena esleipen berria egin arte Epemuga: 2016/03/12	Gehieneko prezioa 18.000 euro + BEZ	21.937,30
Eulen Sociosanitarios	Etxez etxeko laguntza zerbitzua	24/12/2010	Gehienez 5 urte 2015/12/24	Urtez urteko luzapena kontratu berria egin arte	Tarifen araberakoa	140.409,78
Lorraz Elkartea. Arantxa Zabaleta Imaz	Arrisku egoeran dauden adingabeko eta gazteekin eremu irekian Gizarte-hezkuntzako esku-hartzearen zerbitzu publikoa	27/04/2012	Gehienez 4 urte  27/04/2016	Urtez urteko luzapena kontratu berria egin arte	Kontratuaren prezioa 60.000 euro BEZ barne  Prezioa 2016an: 65.529 euro BEZ barne	63.806,72
ERRO KOOP. Elkartea Leire Andia	D'elikatuz zentroaren kudeaketa	24/07/2012	Gehienez 4 urte  27/04/2016		Kontratuaren prezioa 90.000 euro BEZ barne	102.755,36
INDOK	Munigexen kudeaketa	Kontratu gabe	Urtekoa		Prezioa 2016an: 12.196,80 euro BEZ barne.	11.243,96
LAIA S.COOP.	Agenda 21	01/04/2013	01/04/2015	Kontratu gabe	Kontratuaren prezioa 17.061	24.407,28



					euro BEZ barne	
Ainara Ormaetxea Harto	Immigrazio Zerbitzua	01/01/2016			21.773,95 euro BEZ barne	21.966,02
ALOTZA HAURTZAIND EGIA  Guraso elkartea	Udal Haur- eskolaren kudeaketa zerbitzua	01/09/2009	Gehienez 6 urte  01/09/2009		Kontratua ikusi Tarifak + sub.+ udal zerbitzua emateko kontratua 33.500 euro	388.104,44

**a) Aplikagarria zaizkion arauak:**

**a.1) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.**

“23. artikulua. Kontratuen iraupen-epea.”

1. Sektore publikoko kontratuen **iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai**, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. **Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian**, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, **baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa**, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

“26. artikulua. Kontratuaren gutxienerako edukia:

1. *Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuek aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:*


**k) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.**

**a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.**

“ 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola.”

- 1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

- 2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:



a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontuhartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontuhartzea.**

c) **Ordainketaren kontuhartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontuhartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako amankomunatuari erantsiko zaie.

“70. artikulua. Ingerak.”

1.- Kontuhartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontuhartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtsezko beharkizun** edo izapidetza alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

**a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.**

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”


Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailetza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzuniko die, ikuskatutako jarduketan aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

**Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.



2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaitzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»


Hile honetan irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira:

<b>FAKTUREN INGERAK</b>	<b>APIRILA</b>	
<b>HORNITZAILEA</b>	<b>FAKTURA ZKIA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2018/04	3.660,98
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	18	38000
LORRATZ ELKARTEA	36	5460,75
LORRATZ ELKARTEA	74	5460,75
INDOK	1090	626,18
LAIA, S.COOP.	18/14	1492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	004U/18	7640,25
GESMUNPAL, S.A.	2018/060	1.914,75
GESMUNPAL, S.A.	2018/01	197,40
GESMUNPAL, S.A.	2018/062	2.463,49
GESMUNPAL, S.A.	2018/02	1.190,55
GESMUNPAL, S.A.	2018/109	3.722,75
GESMUNPAL, S.A.	2018/03	507,67
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3520785	5.264,69
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	23	286,48
LANDARRI, S.L.U.	1800164	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800202	1925,21
LANDARRI, S.L.U.	1800206	401,07
LANDARRI, S.L.U.	1800235	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800236	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800238	401,07
LANDARRI, S.L.U.	1800239	320,87
	<b>GUZTIZKOA</b>	<b>81.659,56</b>

**ONDORIOAK:**

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira

b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaitzako txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**



**2018/0400. DEKRETUA**

**HONAKO HAU IKUSITA:**

- Kontu-hartzaileak 2018ko apirilaren 24an egindako 04/2018 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.

- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie

- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak gardentasun irizpideen baitan administrazioak betebeharrak jakin batzuk izateak espediente guztiak zorrotasun handiagoarekin bideratzera eta beste erakunde eta administrazio batzuei gai askoren inguruko informazioa helaraztera garamatza.

- Hala eta guztiz ere zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariekin pleguak prestatzeko eta plangintza egiteko bilerak egiten ari gara.

- Plangintza hori emaitzak ematen hasi da.

- Hala ere eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.

Horregatik guztiagatik:

**HONAKO HAU ERABAKI DUT:**


\* Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.

Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

**ERREPAROA: FAKTURAK.-APIRILA**

HORNITZAILEA	FAKTURA ZKIA	ZENBATEKOA
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2018/04	3.660,98
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	18	38.000,00
LORRATZ ELKARTEA	36	5.460,75
LORRATZ ELKARTEA	74	5.460,75
INDOK	1090	626,18
LAIA, S.COOP.	18/14	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	004U/18	7.640,25
GESMUNPAL, S.A.	2018/060	1.914,75
GESMUNPAL, S.A.	2018/01	197,40
GESMUNPAL, S.A.	2018/062	2.463,49
GESMUNPAL, S.A.	2018/02	1.190,55
GESMUNPAL, S.A.	2018/109	3.722,75
GESMUNPAL, S.A.	2018/03	507,67





## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3520785	5.264,69
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	23	286,48
LANDARRI, S.L.U.	1800164	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800202	1.925,21
LANDARRI, S.L.U.	1800206	401,07
LANDARRI, S.L.U.	1800235	320,87
LANDARRI, S.L.U.	1800236	80,08
LANDARRI, S.L.U.	1800238	401,07
LANDARRI, S.L.U.	1800239	320,87
	<b>GUZTIZKOA</b>	<b>81.659,56</b>

\* Dekretu hau doakionari jakinaraztea. \* *Notifíquese el presente Decreto al interesado.*  
ALKATEAK / EL ALCALDE,

### Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Eguren jaunak

Esan du legeztatuta ez dauden zerbitzu-kontratuen ordainkeei buruzko informazioa hilerok ekartzen duela Osoko Bilkurara. Ia aurrerapenik ematen ari den galdetu du.

#### Alkate jaunak

Erantzuten dio lantzen ari dela eta indarrean sartu berri dela Sektore Publikoko Kontratuen lege berria eta horretara egokitu behar garela.

Jakinazten du, laister etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eta hilerriko zerbitzuaren lizitazioa egingo dela.

#### Sukia andreak

ALOTZARI esleitutako Haur Eskolako zerbitzuari buruz galdetzen du eta jakin nahi du esleipena zertan dagoen. Jakinarazten du berak daukan informazioaren arabera, epe bat eman zitzaiela legeak eskatzen duen dokumentazioa aurkezteko. Galdetzen du eman zaien bigarren epea noiz betetzen den.


#### Alkate jaunak

Erantzuten dio bigarren epe hori apirilaren 30ean bete zela.

#### Iturrioz jaunak

Gaineratzen du arazoak izan dituztela kontratuaren behin betiko bermea aurkezteko Kutxarekin abala negoziatzen ari baitira. Espero dute datorren astean negoziaketak horiek egikaritzea, berme hori izatea eta kontratua esleitzea.

### Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

**4.- Ordiziako PSE-EE (PSOE)k aurkeztutako mozioa, genero indarkeriaren aurka estatuko itunean jasotako neurriei buruzkoa.**

Proposamena

Espainiako gobernuak genero indarkeriaren aurka estatuko itunean jasotako neurriak garatzeko konprometitutako aurrekontuaren inguruan, Ordiziako talde Sozialistak udalean aurkeztutako mozioa, bertan hausnartzeko, eztabaidatzeko eta, ondoren, udalbatzak onartzeko.

**ARRAZOIEN AZALPENA**

Emakumeen aurka egiten den indarkeriaren kontrako borrokak lehentasuna eduki behar du gizarte osoarentzat halaber, alderdi politikoen eta, lehenik, gobernuaren eta administrazioen -eurei dagozkien eskuduntzen esparruan- obligazioa ere izan behar du.

Diputatuen Kongresuak onartutako Genero Indarkeriaren arloan Estatuko Itunak alderdi politikoak, Estatuko, administrazio autonomikoetako eta toki-administrazioetako botereak zuzenean lotzen ditu, genero-indarkeriarekin amaitzen laguntzeko hartutako konpromisoan.

Estatuko Ituna gaur egun indarrean dagoen legeriaren tresna osagarri bat da, eta adostutako neurriak garatzeko behar diren erakunde-mailako koordinazio-esparruak finkatzen ditu. Arazoari modu integralean ekiten dioten 213 jarduketa-proposamendira guztira. Proposamen horiek, oro har, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eta euren seme-alaben egoera hobetzen dute.

Baina indarkeria matxiste errotik kentzeko eta emakumeei arreta zehatza emateko bidean ezingo dugu aurrera egin, baldin eta beharrezkoak diren koordinazio-mekanismo horiek arlo honetan erantzukizuna duten administrazioen eta erakundeen artean ezartzen ez badira. Halaber, ezingo dugu aurrera egiten jarraitu Administrazioei (Autonomia Erkidegoak eta Udalak) behar dituzten baliabide ekonomikoak ematen ez badizkiegu.


Autonomia-administrazioen eskuduntzei eta aginpideei dagokionez, itunean jasotakoa azpimarratu behar da: "Itun honetan xedatutakoa interpretatu beharko da dagokien autonomía-estatutuen arabera autonomía-erkidego bakoitzak berari eman zaizkion eskuduntzak erabat gauzatzeko kalterik gabe; ondorioz, txoten honetan jasotako gomendioak ezingo zaizkie autonomía-erkidegoei edo beste administrazio publiko batzuei lotu, euren eskuduntza-esparruei eragien dietenean".

Alderdi hori funtsezkoa da, genero-indarkeriaren aurkako borrokari eskainitako autonomía eta toki-administrazioen esfortzua eta konpromiso ekonomikoa aitortzen denean.

Horregatik, eta Itunean ezarritako neurrien arabera, Administrazio horiei Itunean finkatutako eta Gobernuak berak konprometitutako partida ekonomikoak eman behar zaizkie.

Akordio horietan oinarrituta, gogoratu behar da Talde Parlamentario guztiek 2017ko urrian Talde Sozialistak aurkeztutako legez besteko proposamena babestu eta bere alde bozkatu zutela. Proposamen horren arabera, aurrekontuen luzapena emanez gero, Espainiako Gobernuari Lege Dekretu bidez gutxienez 200 milioi euro handitzea onartzeko eskatzen zitzaion, genero-indarkeriaren arloan Estatuko itunari lotutako aurrekontu-akordioak betetzeko.

Espainiako Gobernuak ez du akordio hori bete, Alderdi Popularrak aldeko botoa eman arren.



## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

Era berean, azpimarratu eta saiatu behar da, 2018rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren proposamenean berriro ere ez dela betetzen itunean konprometitutako aurrekontu konpromisoa.

Hori guztia kontuan hartuta, ORDIZIA Udaleko Talde Sozialistak gainerako Udal Taldeei ondorengo akordioak babes dezaten eskatzen diegu.

AKORDIOAK:

**1.- Espainiako Gobernuari eskatzea, Estatuko Aurrekontu Orokorretan, transferentzien bitartez, urtean Udalei 20 milioi euro eta Autonomia Erkidegoei 100 milioi euro gehiago bideratzeko, Autonomia Erkidegoei eta Udalei emandako kompetentzia berrietarako edo hedatuetarako.**

**Itunaren akordioan testualki adierazten den bezala: “Estatuko Aurrekontu Orokorrek, Udalei egindako transferentzia bitartez, urtean 20milioi euro gehiago bideratuko dituzte ondorengo bost ekitaldietan”.**

**2.- Osoko bilkurako erabaki hori Espainiako Gobernuako presidenteari, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Bertintasuneko ministroari eta Diputatuen Kongresuko Talde Parlamentarioei helaraztea.**

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Dubreuil jaunak

Esan du azken hilabeteotan Estatuko aurrekontu orokorren eztabaidarekin egiaztatu dela genero indarkeriaren aurkako Estatuko ituna ez dela betetzen ari.

Jakinarazten du 200 milioi euroko partida bat zuzendu zela Autonomia Erkidego, Lurralde Historiko eta udalerrien artean banatzeko eta aurrekontu proiektuan 80 milioi euro bakarrik sartu direla 2018rako. Hau da, 120 milioi euroko murrizketa jazo da.

Mozioak aurkezten duena hau da: itunaren urraketaren aurrean, Estatuko Gobernu bultzatzea ituna bete dezan.

#### Sukia andreak

Esan du aurrekontu urraketa bat dela eta momentu honetan Madrilen ari direla aurrekontuak negoziatzen EAJ-rekin eta ematen duela, azken honek, PP-ren aurrekontuak onartuko dituela.

#### Dubreuil jaunak


Esan du ez dakiela aurrekontuak onartuko diren ala ez, baina badakiela aurkeztutako proiektuak ituna urratzen duela.

#### Alkate jaunak

Esan du ez dakiela aurrekontuak onartuko diren, baina esan du horrela balitz, euren alderdiari eskaera helaraziko lioketela ituna bete dadin eskatuz.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:



## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.**



Jarraian, Lehendakari jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

### **5.- “DUINTASUNA” Gipuzkoako Jubilatu eta Pentsiodunen elkartearen proposamena, pentsioei buruzkoa.**

#### Proposamena

Gipuzkoako Jubilatu eta Pentsiodunen “DUINTASUNA” ELKARTEAREN PROPOSAMENA ORDIZIAKO UDALBATZARI AURKEZTEKO MOZIOA ALDERDI POLITIKOAK DEITUZ, AHALIK ETA BIZKORREN ONARTU DEZATEN.

MOZIOA:

Gipuzkoako Jubilatu eta Pentsiodunen “DUINTASUNA” ELKARTEAK ESKATZEN DU MOZIO hau azter dadila Ordiziako Udalaren Udalbatzan eta deitzen ditugu Udal taldeak onartu dezatela.

Pentsioadunok aspaldi nabaritzen ari gara gure pentsioen eros ahalmena galtzen ari dela. Estatuko gobernuek egin dituzten ondoko ondoko pentsioen erreformek, PP-k nahiz PSOE-k, kalte handia egin digute. Gu gara, pentsioadunok, murrizketak nozitzen ari garenak (hilabete bukaerara iristea kostatzen zaigu, eta batzuetan, ez dezakegu berogailua piztu); bien bitartean, badago dirua bankarentzat, elektrikentzat, enpresariarentzat,...

Pentsiodun gehienok txirotasun atalasearen azpitik kobratzen dugu, eta gero eta zailagoa egiten zaigu duintasunez bizitzea gure bizitzen azken urteotan, urte luzez lan egin eta kotizatu ondoren. Dirudienez, horrek ez omen die axola gure politikariei, biztanleriaren %25<sup>a</sup>, pentsiodunok alegia, bizi dugun egoera arintzeko neurririk ez dituztelako hartzen.


Ez da aurreneko aldia eskatzen duguna aintzakotzat har gaitzela, duintasunez bizitzen lagako diguten gutxieneko pentsioak berma dakizkigula. Honen harira, gogoan izan behar dugu pentsiorik kaskarrenak dituzten gehien-gehienak, onartezina den zigor bikoitza jasaten duten emakumean direla.

Honengatik guztiarengatik, eta uste dugunez BORONDATE POLITIKO BATEZ ari garela, lehen adierazi dugu beste gaietarako badela dirua, UDAL HONI ESKATZEN DIOGU:

**1.- Arbuda dezala pentsioen %0,25eko igoera ziztrina eta erreklamatu dezala haien eros ahalmenari eutsi behar zaiola.**

**2.- 1.080€-tako gutxiengo pentxioa ezartzea eska dezala, txirotasun atalasetik irten gaitzen, Euskal Herriari dagokion eran eta Europako Gutun Sozialak ezarria betez, eta hori gauzagarria izango ez den bitartean, eska diezaiola Gasteizeko Jaurlaritzari, aipatu kopurua pentsiodun guztiek hileroko eskura dezaten, behar den osagarria ezarri behar dela.**

**3.- Ezar dadila Euskal Herriko Babes eta Gizarte Segurantzza Sistema, gero eta pertsona adindun gehiagoren pentsio publikoak eta behar dituzten zaintzak berma daitezen.**



## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

**4.- Datorren urtean 2019. Urtean, ezarri behako litzatekeen jasangarritasun faktorearen ezarpena arbuia dadila zeinak gure pentsioei murrizketa berria eta handia ekarriko dien.**

**5.- Bidal diezazkiela Estatuaren Gobernuari eta Gasteizeko Jaurlaritzari Udal honek onartu dituen erabakiak.**

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jaunak

Publikoko pertsona bati, Gipuzkoako Pentsiodun eta jubilatuen elkarteko ordezkariari, hitza ematen dio.

#### Elkarteko ordezkaria

Elkarteko ordezkariak mozioaren helburua azaltzen du eta aurkeztutako 5 eskaerak banan-banan azaltzen ditu.

#### Sukia andreak

Esan du Osoko Bilkura honek helburu bera duen mozio edo proposamen bat onartu zuela dagoeneko. Bere ustez, 3. puntua gehitzea bakarrik faltako litzatekeela.

#### Dubreuil jaunak

Esan du mozioaren kontra bozkatuko duela. Eusko Legebiltzarraren akordio gehiengodun bat badagoela, 2018ko martxoaren 22koa. Haiek akordio hori babesten dutela eta EH-BILDUK eta PODEMOSek zuzenketa bat egin ziotela 2018ko apirilaren 12ko datarekin eta hori ere, haiek babestu zutela. Eta egin beharko litzatekeena akordio horiek berrestea dela adostasun zabal lortu dutelako.

Gehiengoaren akordio horiek gardentasunez eta elkartasunez kudeatutako pentsioen sistema publiko askietsia eta jasangarria bermatzeko bidean daude, eta baita pentsio baxuenak osatzeko diru-sarrerak bermatzeko arautegia berrikustera behartzeko bidean ere.

Uste du espektro zabalagoa duten beste eskaera batzuetako akordioak berretsi egin behar direla eta ez proposamen berriak onartu.

Ez datoz bat Euskal Autonomia Erkidegoan babeserako eta gizarte segurantzako berezko sistema baten eskaerarekin eta ez daude ados mozioaren puntu horrekin.

Helburuetan eta adostasun zabal eta erabatekoetan lan egin behar dela eta mozio horrek adostasunak lortzeko aukerak murrizten dituela.


#### Eguren jaunak

Esan du bere taldeak mozioaren alde bozkatuko duela, eskaera eta helburu oso zehatzak dituelako.

Dubreuil jaunaren jarrera ulertzen duela; PSOE, PP-rekin batera, izan delako gaur egun gauden lekura eramán gaituena.

Harritu egiten du ordea, kritika bat egiteagatik akordioak ezingo direla lortu pentsatzeak. Demokrazia ulertzeko modu berezi bat dela.

Harritu egiten du ere, pentsioak osatzeko Eusko Jaurlaritzari lagapen bat egitearen kontra egoteak; izan ere, udaletxea beste zerbitzu batzuk osatzen dituenean gauza bera ari da egiten, hezkuntzan adibidez.



## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

Azkenik, uste du estatuko gobernuak planteatutako eta kudeatutako sistema oso txarra dela eta berezko gizarte segurantzaren eta babes-sistema bat izateak sistema hobeto bat ekar dezakeela.

### Alkate jaunak

Esan du, koherentziagatik, mozioaren alde bozkatuko duela; izan ere, bere alderdiak behin baino gehiagotan, elkartearekin batera, kontzentrazioak babestu dituela.

Estatu mailan, bere alderdia gaia defendatzen eta negoziatzen ari dela.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Kontrako botoak: 1 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.**

### Elkarterko ordezkariak

Esan du bilkurako kideren batek mozioa independentismoarekin erlazionatu duela, baina berak ordezkatzeko duen elkarte ez dela elkarte independentista bat eta helburua berezko babes-sistema bat edukitzea dela, beste barik. Uste du gauzak nahasten ari direla.

### Dubreuil jaunak

Esan du bakoitzak bere iritzia eman dezakeela eta berezko sistema bat desiratzea, nahiz eta berak negozio txar bat dela uste duen. Hala ere, uste du mozio horrek estatuko sistema publiko bat defendatzen duen edozein talde edo alderdi politiko baztertzeko duela.



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.


**6.- Gizarte Zerbitzuen Sailak Oinarrizko gizarte zerbitzuei buruz egindako proposamena, Alkatetzari eskatuz GOIEKI S.A.-ri zuzendutako idatziarekin bat egin dezala.**

### Proposamena

Eskualdeko udal ezberdinetako gizarte-langileek Alkatetzara igorritako eskaera hona ekarriz, eta horren iritziarekin eta eskaerekin bat eginez, Udal Gizarte Ongizate Sailak Osoko Bilkura honetan hurrengo proposamena aurkezten du:

Goierriko gizarte langileak harremanetan jarri dira eskualdeko alkateekin, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren harira.

Dekretuan Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eskaini beharreko zerbitzuak arautzen dira, besteak beste, baita horiek lortzeko irizpideak eta prozedurak ere. Goierriko udal gizarte zerbitzuek ez dituzte eskaintzen dekretuan arautzen diren hainbat prestazio, eta, horiek udalaren betebeharra direla ikusita, Ordiziako Udalak SIIS bidez ikerketa bat egin du dauden hutsuneak detektatzeko. Bertan agertzen diren datuak Goierri bailara osora hedatu daitezke. Hauek dira Goierriko udalek bete behar dituzten zerbitzuetako batzuk, SIISen azterketaren arabera:



## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

- Gizarteratze beharrean dauden pertsonentzat eguneko pisuak (20 plaza 2017an).
- Gizarteratze beharrean dauden pertsonentzat gaueko pisuak (18 plaza 2017an.)
- Etxebizitza tutelatuak gizarteratze beharrean daudenentzat (gizarte bazterketako egoerak, haur edo nerabeak euren kontu dituztenak) (8 plaza 2017an).
- Eguneko zentroak adinekoentzat (65urtetik gorako pertsonak MBB 23-39 puntu dituztenak) (6 plaza 2017an Goierrin).
- Larrialdietarako pisuak (gizarte larrialdi egoera baten ondorioz etxebizitza behar duten pertsona eta familientzat).
- Genero indarkeria jasan dutenentzako pisuak (babes neurririk gabeko egoerak) (4 plaza 2017an Goierrin).
- Adinekoentzat alojamendua (65 urtetik gora eta MBB 25-49 dutenentzat) (47 plaza 2017an Goierrin).

Gipuzkoako hainbat eskualdetan garapen agentziek hartu dute beren gain honen kudeaketa, eta gure eskualderako ere horixe litzateke aproposena, planifikazio komun bat egin eta garapen bateratu bat egiteko.

Hori hala izanik, nik, Jose Miguel Santamaría Ezeizak, Ordiziako alkateak, eskualdeko udal ezberdinetako gizarte-langileek Alkatezara igorritako dokumentuaren iritziarekin eta eskaerekin bat eginez, Goieki garapen agentziako administrazio kontseiluari eskatzen diot gaia azter dezala eta kontuan har dezala ondorengo asistentzia teknikoa emateko aukera:

- **Goierriko udal guztientzat zentroen edukia modu adostuan definitzea, bai ezaugarriak dagokienez baita sartzeko baldintzei dagokienez ere.**
- **Goierriko aproposak ikusten diren zentro motetarako plaza zenbakia adostea.**
- **Gaur egun Goierrin dauden zerbitzu, programa, zentro edota ekipamenduen inbentario bat egitea.**
- **Zerbitzu berrien kokapena adostea.**
- **Baliabideen ko-gestiorako eta ko-finantzaketarako moduak ahalbidetzea.**

Ordizian, 2018ko martxoaren 7an.- Alkatea, Jose Miguel Santamaría Ezeiza.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:


#### Alkate jaunak

Proposamenaren helburua azaltzen du.

#### Dubreuil jaunak

Esan du aurreko apirilaren 8an, eskualdean gizarte zerbitzuetako zorroa lantzen ari diren gizarte langileek eta ordezkari politikoek (batez ere udalerrri txikikoek) azterketak egiteko eta gaian adostasunak lortzeko zailtasunak eta gabeziak antzeman zituztela. Horregatik, GOIEKI, eskualdeko garapen agentzia bat denez, eta beste arlo batzuetan ere lan egin duenez, gizarte zerbitzuak ezartzeko eskualdeko udalerriekin lan egin eta horiei aholkuak eman beharko lizkiokeela uste dute. Eta helburu horretarako, idatzi bat bidali dute Alkateek sinatu ostean, agentziari bidaltzeko.

Jakinarazi berri da Ordiziak ez duela eskaera-idatzi hori bidali. Horregatik ekarri da Osoko Bilkurara, dokumentuaren izenpetzea adosteko.



Uste du gaia bideratu behar duena udalaz konpoko erakunde bat izan behar duela.

#### Eguren jaunak

Esan du erabat ados dagoela Dubreuil jaunarekin, baina bi xehetasun eman nahi dituela.

2010. urtean, GOIEKIk aurreko urteetan lideratu zituen hainbat egitasmo bukatutzat eman zituen.

Horren ostean, elkarlan jarduera horiek ahalbidetzeko, garapen agentzia osatzen duten udalerriek biztanleko euro 1 ordaintzeko konpromisoa berrartu zuten.

Baina gaurko egunean, hori ez da betetzen.

Agentziak dituen 25 urte hauetan, batez ere, industria-arloa landu da, baina momentu honetan, eskualdearen garapena industrialara ez den beste alderdi edo arlo batzuekin lotuta dago.

Nahiko luke idatzia bere horretan ez geratzea, hau da, zerbait eskatuz bidaltzen den idatzi soil bat; baizik eta akordio horiek egikaritu daitezzen, gainontzeko udalerriekin lan egitea.

#### Sukia andreak

Bere adostasuna erakusten du.

Esan du nahiz eta askotan, gai jakin batzuetan, GOIEKlri parte-hartzea eskatu zaion, Lehendakaritzaren erantzuna, eta baita udaletxeren batena ere, GOIEKI ez dela horretarako izan da.

Uste du GOIEKI berriz definitu beharko litzatekeela eta beharrezkoa balitz, definizio berri hori egikaritzeko bitartekoak jarri beharko liratekeela.

Esan du lan handia dagoela egiteke.

#### Maiza andreak

Esan du, legegintzaldiaren hasieratik, oposizioko bi alderdiek eskatu dutela GOIEKIk gizarte zerbitzuen lankidetzara bere gain har zezala eta beti, aurrez aurre, pareta batekin topo egin dutela. Gizarte zerbitzuak gai estrategikotzat ditu.

Beti erantzuten dela GOIEKI ez zela helburu horrekin sortu. Agentziaren helburua eskualdeko garapena dela, enpleguaren sustapena eta promozioa, aberastasuna sortzea, berrikuntza eta abar.


Uste du erakunde itxi bat dela, hermetikoa hobeto esanda, eta udalerrietan sortzen doazen beharrezanetan esku-hartzeko eta aholkuak emateko inolako borondaterik ez daukana. Gizarte zerbitzuak hasi berri den horietako bat dela eta garatu beharko litzatekeela datozen urteotan; halaber, horrek lana sortuko duela, gaur egun azpikontrataturako enpresen bitartez egiten den lana.

Esan du orain dela urtebete, Idiazabalgo Alkateak hitzeman zuela udalerritik txikitzen gai hauek lantzeko lan talde bat sortuko zuela eta konpromiso hori, gaur egun, ez dela bete.

Gai honi dagokionez, GOIEKlri egiten zaizkion galderen erantzunak beti zeharkakoak dira. Azkena, Aldunian horri buruzko bilera bat egingo zela izan zen. Ez dakigu bilera hori egin den ala ez. Ez zaie jakinarazi.

#### Dubreuil jaunak





## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

Bat egiten du GOIEKIk hainbat esparruetan lagundu eta industriaz gaindiko egitasmoak sustatu behar duenaren ideiarekin.

Gustoko du hartu berri duen ildo gizarteratze eta laneratze programekin, baina uste du gizarte zerbitzuak modu orokorrago batean zabaldu behar direla.

Laburbilduz, proposamenarekin lortu nahi dena GOIEKIk arolo sozialari berriz ekitea da, baina modu irmo batean, plan estrategikoen lanketan lagunduz.

Uste du eztabaida ardaztu behar dela eta prest ez dauden hainbat udalerrirekin adostasuna bilatu. Bestela, eroetxe bat izango dela.

Beste eskualde batzuetan, eskualdeko garapen agentziak izan direla paper hori hartu dutenak eta ez dakiela, gure kasuan, zergatik ez den horrela izan.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

### 7.- Udaletxearen aurrekontu aldaketa 2017ko ekitaldia itxi aurretik.


#### Proposamena

**2018rako apirilaren 18ko plenorako gaien Batzarraren oniriziarekin.**

Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean gastu partiden arteko transferentzia bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu dugu. Partiden arteko transferentzia honako hau da:

#### **KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**


Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 227.01.442.00.0800 2017	Garbiketa. Garraioak TERREST.	1.756,59	87,19	1.669,40
1 221.04.135.00.0900 2017	Erregaia. Babes zibila	250,00	224,74	25,26
1 224.99.136.00.0300 2017	Bestelako aseguruak. Suhiltzaileak	345,00	235,68	109,32
1 224.02.132.00.0300 2017	Aseguruak. Udaltz.	550,00	240,07	309,93
1 226.99.171.20.0800 2017	Hainbat gastu.OIANGU Parkea	300,00	245,78	54,22
1 227.01.135.00.0900 2017	Garbiketa. Babes zibila	250,00	250,00	0,00
1 230.01.326.30.1800 2017	Dietak. Hiri-hezitzaileak	317,89	255,98	61,91



## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

1 480.03.231.00.1000 2017	Lagunt. pasadizoko jendea. Ongiz.saila	700,00	265,10	434,90
1 221.05.153.40.0800 2017	Arropak. Bide publikoak	750,00	268,89	481,11
1 227.01.432.00.1700 2017	Garbiketa. D'ELIKATUZ	7.960,00	325,32	7.634,68
1 221.01.337.10.1100 2017	Argindarra. Jubilatuen Egoitza	11.557,22	342,93	11.214,29
1 222.01.341.00.1500 2017	Telefonoak, Majori	401,67	343,91	57,76
1 421.01.170.00.0700 2017	Ekar. ENIRIO-ARALAR MANKOMUNIT.	4.760,19	356,59	4.403,60
1 480.01.231.30.1000 2017	Drogen prebent. garraio lagun..	1.475,00	410,36	1.064,64
1 226.08.231.00.1000 2017	Mugikortasun murrizt. Progr.	2.000,00	417,55	1.582,45
1 221.09.323.20.1800 2017	Garb.produkt.. Ikast.URDANETA	600,00	472,11	127,89
1 226.05.135.00.0900 2017	Bilerak eta konferentziak. Babez zibila.	500,00	500,00	0,00
1 226.03.151.00.0700 2017	Publizit eta prop. Hirigintza	500,00	500,00	0,00
1 221.01.132.00.0900 2017	Argindarra. Udaltz.	2.800,00	501,84	2.298,16
1 211.01.326.40.0800 2017	Mant.lan. HIZKUNTZA ESKOLA	525,12	525,12	0,00
1 227.02.323.20.1800 2017	Segurt.Urdaneta Ikast.	1.000,00	614,09	385,91
1 212.01.132.00.0900 2017	Mant.lan. Tresn. Udaltz.	2.057,82	639,90	1.417,92
1 211.01.333.10.0800 2017	Mant.lan.eraik. Kultura	5.500,00	675,97	4.824,03
1 213.01.135.00.0900 2017	Ibilg.mant. Babes zibila	1.000,00	713,39	286,61
1 221.04.323.20.1800 2017	Erregaia. Urdaneta ikastetxea	19.542,85	716,44	18.826,41
1 211.01.323.20.0800 2017	Mant.lan.eraiki. Urdaneta Ikast.	2.000,00	999,83	1.000,17
1 211.01.171.20.0800 2017	Mant.lan.eraik. Oiangu parkea	1.000,00	1.000,00	0,00
1 211.01.311.20.0800 2017	Mant.lan.eraik. Komunak	1.000,00	1.000,00	0,00
1 221.05.163.00.0800 2017	Arropak. Kale garbiketa	2.797,66	1.129,56	1.668,10
1 227.99.133.00.0900 2017	Contrato para el control de la velocidad	18.071,35	1.176,88	16.894,47
1 212.01.337.20.0800 2017	Mak.mant..Tresn. Gazteria	1.750,00	1.401,97	348,03
1 214.01.171.10.0800 2017	MANT.Altzariak.Park eta lor.	1.650,06	1.650,06	0,00
1 221.99.163.00.0800 2017	MATERIAL BEREZIAK. Kale garbiketa	10.844,17	2.310,49	8.533,68
1 481.01.334.00.1200 2017	Erakundeei Transf.. Kultura	4.858,04	2.372,43	2.485,61
1 226.99.163.00.0800 2017	Hainbat gastu. Kale garbiketa	8.000,00	2.843,89	5.156,11
1 210.01.171.20.0800 2017	Mant.lan. Gune natur. Oianguren parkea.	3.000,00	3.000,00	0,00
1 221.01.335.00.0600 2017	Argindarra. EUSKARA	5.140,00	3.048,66	2.091,34
1 481.01.335.00.1800 2017	Transf..Eusk.sust.	4.592,92	3.070,25	1.522,67
1 201.01.333.10.1200 2017	Errent. lokalak. Kultura	10.571,48	3.071,48	7.500,00
1 211.01.231.20.1000 2017	Mant.lan.eraik. Egun. zentroa	3.116,44	3.116,44	0,00
1 221.01.333.10.1200 2017	Argindarra. Kultura	19.090,63	3.219,93	15.870,70
1 481.03.912.00.0100 2017	Irabazi xederik gabeko erak. Transf..	9.500,00	3.500,00	6.000,00
1 221.01.432.00.1700 2017	Argindarra. D'ELIKATUZ	14.324,50	3.717,98	10.606,52
1 481.01.431.10.1400 2017	Transf.. FERIA BEREZIAK	4.330,00	4.330,00	0,00
1 221.01.323.20.1800 2017	Argindarra. URDANETA ikastetxea	26.000,00	4.436,14	21.563,86
1 481.01.912.00.0100 2017	Transf.. Gob. Org.	5.500,00	5.500,00	0,00
1 227.09.931.00.0200 2017	Diru-bilketa exekutiboa.	42.505,24	6.008,92	36.496,32




**Ordiziako Udala**

2018IOSB0004

	Admin.finantz..			
1 221.09.171.10.0800 2017	Garb.produkt..Park eta lor.	6.082,13	6.082,13	0,00
1 227.07.171.20.0800 2017	Azterlan teknik. Oianguren parkea.	17.593,80	7.355,83	10.237,97
1 481.01.338.10.1400 2017	Diru-Lagunt. Erakundeei.	15.412,76	7.412,76	8.000,00
1 481.04.230.20.1000 2017	Diru-lagun. Ipar -Hego	94.500,00	12.905,75	81.594,25
1 601.02.153.40.0800 2017	Obra txikiak	24.000,00	13.390,76	10.609,24
1 332.01.011.00.0200 2017	Barneko maileguren interesak.	39.090,11	19.987,37	19.102,74
1 226.99.334.00.1200 2017	Hainbat gastu. Kultura	138.570,25	22.823,43	115.746,82
1 211.01.933.00.0800 2017	Mant.lan.eraik. Etxebizitza	34.500,00	28.488,70	6.011,30
1 227.04.231.10.1000 2017	Kontr.: Etxez etxeko Lagunt.	162.000,00	75.752,86	86.247,14
1 221.02.323.201800 2017	Ur kontsumoa. Urdaneta ikastetxea.	3.759,87	1.146,64	2.613,23
	<b>GUZTIRA</b>	<b>802.550,76</b>	<b>267.380,09</b>	<b>535.170,67</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 120.01.920.00.0400 2017	Oin.Ord.. Admin.Orokor.	98.350,00	15.596,20	113.946,20
1 212.01.164.00.0800 2017	Mak.mant..Tresn. Hilerria	193,24	405,90	599,14
1 221.02.164.00.0800 2017	Ura	0,00	60,78	60,78
1 227.99.164.00.0800 2017	Kontr. zerbitzuak. Hilerria	24.457,65	4.878,97	29.336,62
1 221.01.165.00.0800 2017	Argindarra. Argiteria	140.521,79	13.098,81	153.620,60
1 226.06.170.00.0700 2017	Ingurumen Jarduerak	1.417,38	189,26	1.606,64
1 227.07.170.00.0700 2017	Kontr. Lagunt. teknikoa.	17.000,00	913,96	17.913,96
1 201.01.323.10.1800 2017	Errent. Haurtzaindegiaeren lokala ALOTZA	6.984,12	47,56	7.031,68
1 221.02.323.10.1800 2017	Ur kontsumoa. Alotza Haur Eskola	0,00	2.331,77	2.331,77
1 212.01.332.10.1300 2017	Mak.mant..Tresn. Kultura	750,00	556,39	1.306,39
1 226.99.430.00.1700 2017	Jarduerak. Dinamizazio komertziala.	6.020,29	1.173,02	7.193,31
1 213.01.431.20.0800 2017	Ibilg.mant. Merkatua	231,10	127,69	358,79
1 231.01.912.00.0100 2017	Diet.garr.. Gob. Org.	39.000,00	1.917,75	40.917,75
1 226.06.924.00.0100 2017	Partaidetzako prozesuak-plan orokorra.	48.500,00	5.760,06	54.260,06
1 481.01.231.00.1000 2017	Transf.. Drogen prebentziorako	3.000,00	1.500,00	4.500,00
1 481.02.231.00.1000 2017	Irab.xed.gab.erak.Transf..	9.500,00	4.515,05	14.015,05
1 481.03.231.00.1000 2017	Beste diru-lagun.. Ongiz.saila	2.000,00	1.000,00	3.000,00
1 227.04.230.20.1000 2017	Ipar-Hego Zerbitzu kontratua	2.240,56	58,20	2.298,76
1 369.01.931.00.0200	Gastu finantzarioak.	300,00	129,94	429,94



## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

2017	Admin.finantz..			
1 601.01.152.10.0700	San Juan urbanizazioaren kuotak	99.820,86	106.271,62	206.092,48
1 642.01.151.00.0000	Plan Orokorraren erredakzioa.	35.470,34	49,61	35.519,95
1 643.01.231.00.0000	Ongizateko plan estrategikoa	21.780,00	23.311,00	45.091,00
1 643.01.342.00.0000	Majori instakuntzen ikerketa	54.395,55	5.604,45	60.000,00
1 933.01.011.00.0200	Kutxek emandako kredit. Amortiz.	445.610,00	68.281,53	513.891,53
1 212.01.338.10.1400	MANT.Tresn. Zaindariaren jaiak	2.500,00	563,42	3.063,42
1 226.97.338.20.1400	Jubilatuena bazkaria	10.000,00	1.200,00	11.200,00
1 226.98.338.30.1400	Gabonetako apaingarriak	17.058,64	6.843,66	23.902,30
1 481.02.337.10.1100	Diru-Lagunt. Ur Kontsumoa	3.187,28	993,49	4.180,77
	<b>GUZTIRA</b>	<b>1.090.288,80</b>	<b>267.380,09</b>	<b>1.357.668,89</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Alkatetzak egindako proposamena aztertu da, baita gainerako txosten, ziurtagiri eta jarduketak ere. Hortik ondorioztatu da adierazitako aldaketa aurrekontuaren exekuzioa arintzeko lagungarria izango dela eta horren izapidetza bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin. Hori hala izanik, batzorde honek bidezkoztat jo du organo eskudunak onartzea kreditu transferentzia, 267.380,09 eurokoa, bai gehitutako kredituei (altak) dagokienean, bai transferitutako kredituei (bajak) dagokienean, proposamenean ageri diren aurrekontuko gastu partiden xehetasun berarekin.

Hala eta guztiz ere, aipatutako organoak bidezkoztat jotzen duena ebatziko du.

Ordizia, 2017ko abenduaren 31.- ALKATEA

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Kontu-hartzaile jaunak

Azaltzen du azken kreditu aldaketa hau onartu behar dela aurreko urteko ekitaldia itxi edo likidatu ahal izateko.

Teknikari bezala, ekitaldiaren itxierarekin jarraitu ahal izateko, proposamena onartzeko eskatzen du.


#### Eguren jaunak

Esan du ez dutela aldaketaren onarpena oztapatuko.

Gaineratzen du, Kontu-hartzaileak eman diela eskatutako informazio guztia.

Baina abstenitu egingo direla; izan ere, aldaketak azken urteotan, eta urtean hainbat aldiz, egiten ari den ohiko teknika dela. Ohiko jarduna bihurtu dela.

Deigarria iruditu zaio batez ere, hainbat langileren kontratazioak eragin duen emaitza negatiboagatik egin behar den aldaketa.



## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

Uste du langile-beharrak Batzorde Paritariotik pasa beharko liratekeela. Ez dituela kontratazioak zalantzan jartzen, baina esan du errespetatu behar diren prozedurak daudela.

Batzordeko bilerak aldizkakoak, hamabostean behin, izateko eskatu zutela. Momentu honetan, lan-karga handia dela-eta, aldizkakotasun hori ezinezkoa zela erantzun zitzaizela, baina azken Batzordea otsailaren bukaeran izan zela.

Abstenitu egingo direla, baina geratzen zaien sentsazioa dela, berriz ere, aldaketak dagokien prozedura gabe proposatzen direla.

### Sukia andreak

Esan du Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean erabaki zena Osoko Bilkurako gai-ordenean puntua sartzea izan zela, eta ez puntua bera.

### Alkate jaunak

Eta baita Kontu-hartzaile jaunak ere erantzuten diote uste dutela beti horrela egiten dela. Batzordean erabakitzen dena puntua sartzea dela.

Azalpenak eman ostean, esan du proposatutako aldaketaren kontra bozkatuko dutela, 2017ko aurrekontu luzatuen kudeaketa okerra izan dela uste duelako eta hasieratik eskatzen ari direlako kudeaketa oker hori konpontzeko.

Koherentziagatik, kontra bozkatuko dutela.

2017rako aurrekontuen luzapenak estrategia bati erantzuten diola eta helburu bat daukala, eta esan du helburu hori ez dela inolaz ere bete.

Ulertzen duela urte amaieran aldaketaren bat egin behar izatea, baina egiten diren aldaketak asko direla. Gustatuko litzaioke jakitea aurrekontuaren zein ehuneko erabili den onartutako kreditu transferentzietarako.

### Dubreuil jaunak

Esan du kreditu aldaketaren alde bozkatuko duela. Ekitaldi bat itxi den bakoitzean, aldaketa bat onartu dela. Gainera, uste du, beste urte batzuekin alderatuta zenbatekoak ez direla oso altuak, batez ere, kontuan hartzen badugu 2017an aurrekontu luzatuarekin jardun dugula. Urte batetik bestera izaten den gehitzearekin sahitsezina da kreditu transferentziak egitea, jarduerak egin nahi badira, behintzat.

### Eguren jaunak

Esan du badakiela hau beti horrela egin dela, baina galdetu nahi dio, nahiz eta aldaketaren kopuruekin ados egon, ia ez dagoen ados ere langile-beharrak batzorde paritariotik pasatzearekin.

### Dubreuil jaunak

Baietz erantzuten du.


### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (EAJ-PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 2 (O.ORAIN)

Abstentzioa: 5 (Ordiziako EH-Bildu 5)



**Alkate jaunak ondorioz, proposamena gehiengoz onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

### **8.-2018 ekitaldirako Plantilla Organikoa.**

#### Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen 1985ko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90. artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko 6/89 Legearen 20. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio urtero Aurrekontuak onartzea, eta funtzionarioen, langile finko eta aldi baterako langileen lanpostu guztiak bateratzen dituen langileen plantilla.

Aipatutako arautegia betetzeko eta dauden aurrekariekin, azterketa eta justifikatzeko agiriekin, Idazkaritzak eta Kontu-hartzaileak Udal honetako 2018 urterako Plantilla Organikoa eratu dute, aipatutako aginduek zehazten dituzten irizpideei erantzunez.

Horrekin batera Majori Kiroldegiak eta OOAA (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), goian aipatutako artikulua kontuan hartuta, 2018 urteko ekitaldirako dagozkien Plantilla Organikoak egin dituzte eta 2018 apirilak 18ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen oniritziarekin Udaleko osoko bilkurari onartzeko aurkezten dute honen bitartez.

Aurrekoa kontuan hartuta, honako erabakia hartzea proposatzen da

#### AKORDIO PROIEKTUA

Lehena.- 2018 urteko ekitaldirako Plantilla Organikoa hasieraz onartzea, Udal honetako langile funtzionarioei dagozkien plazak dituen, eta erabaki honen ERANSKIN gisa doana.

Bigarrena.- Majori kiroldegia SL eta OOAAen (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia) Plantilla organikoak hasieraz onartzea, 2018 urteko ekitaldirako langile finkoentzat gordetako lanpostu guztiak dituen.

Hirugarrena.-Espedientea jendeaurrean jartzea, hamabost lanegunez, dagozkion erreklamazioak era iradokizunak aurkeztu ahal daitezen, dagozkion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.


Laugarrena.- Agiri hauek behin betikoz onartutzat ematea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jaunak

esan du proposamena Osoko Bilkurarako Gaien Batzordetik behin baingo gehiagotan pasa dela. Udaltzaingoaren araudira egokitzeko (egitura berriak ezartzen dituen) eta azken urte honetan sortu diren udaltzainen lanpostu hutsak (Euskal Polizia eta Larrialdietako Ikastegiak martxan jarriko duen polizien prozesu bateratuaren bitartez) estaltzeko. Horregatik, bere onespenerako, ekarri da hona gaia.



## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

### Eguren jaunak

Gaia mahai gainean uzteko eskatzen du.

Apirilaren 18an, Osoko Bilkurarako Gaiaren Batzordean, Alkateak gaiaren presakotasunaz informatu zuen, baina 15 egun igaro dira (Osoko Bilkura atzeratu delako) eta denbora eduki badu ere, ez du Batzorde Paritariora deitu.

LPZ-rekin erlazionatutako puntu asko daudela Batzorde horretan eztabaidatu behar direnak eta ez daudela prest, lehenago Batzorde Paritarioan landu ez den dokumentu batekin, ekitaldi berri bati ekiteko.

Gaiarekiko arduraren gehiago eskatzen du. Jakinarazten du alde sozialak ez duela gaiarekiko adostasunik adierazi.

### Sukia andreak

ere uste du gaia mahai gainean utzi beharko litzatekeela.

Gainera, aurrekontu oinarririk gabe plantilla organiko bat onartzea ia legezkoa den galdetzen du.

### Kontu-hartzaile jaunak

Erantzuten dio plantilla organikoa eta aurrekontukoa gauza ezberdinak direla, kontzeptu ezberdinak. Ezberdintasuna zertan datzan azaltzen dio.

### Alkate jaunak

Gogoratzen du iaz eztabaida hori bera eman zela eta uste du posible dela plantilla onartzea aurrekontua onartu gabe.

### Kontu-hartzaile jaunak

Jakinarazten du, berriki, lege berri bat onartu dela eta datorren uztailan indarrean sartuko dela. Legeak ezartzen dituen obligazioak betetzeko, Batzorde Paritarioari Kontu-hartzailetza Sailerako Teknikari bat kontratatze eskatuko diola.

### Dubreuil jaunak

Galdetzen du ia puntu hau ez den alde sozialera pasa.

Alkate jaunak erantzuten dio uste duela Idazkaria alde sozialarekin egon dela, baina ez dagoenez, berarekin ziurtatu arte ez duela hori baieztatu nahi.

### **Puntua mahai gainean uzteko bozketa egin da.**

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:


Aldeko botoak: 8 (EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 5 (EAJ/PNV 5)

Abstentzioa: 0

### **Beraz, gaia mahai gainean geratzen da**





Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

**9.- 2018ko Lanpostuen Zerrendaren hasierako onarpena.**

Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.2 artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko Legearen 14. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio lanpostu zerrenda onartzea, aurrekontuetan aurreikusitako guztiak jaso beharko ditu, funtzionarioak, langile finkoak eta aldi baterako langileak bereiziz.

Aipatutako araudia oinarri harturik, Idazkaritza eta Kontu-hartzailtza Sailak lanpostuen zerrenda eratu du, Euskal Funtzio Publikoaren legearen 15 artikuluan zehaztutako irizpideak kontuan hartuz.

Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legearen 97 artikulua zehaztutakoaren arabera, hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun-data lanpostuen zerrendan finkatuta egon behar dute.

Bestalde, Majori Kiroldetgia SL eta OOAA-k (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia), 2018 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak eratu dituzte, aurrekontuetan behar bezala finkatuta.

Hau guztia kontuan izanik, honakoa proposatzen da:

**AKORDIO PROIEKTUA**

Lehena.- 2018 urteko ekitaldirako Lanpostu Zerrenda hasieraz onartzea, Udal honen zerbitzura dauden lanpostu guztiak barnean dituen, aurrekontu-dotazioak dituztela, erabaki honetako ERANSKIN eremuan dagoen bezala.

Bigarrena.- Majori Kiroldetgia SL-ko eta OOAA-etako (San Jose Egoitza eta Herri Antzokia) lanpostu guztiak, 2018 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrendak onartzea, dagozkion aurrekontu-dotazioak dituztela.

Hirugarrena.- Espedientea jendeaurrean jartzea, hogeitun lanegunez, dagozkion erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal daitezen, dagozkion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik zenbatzen hasita.

Laugarrena.- Lanpostuen Zerrenda behin betikoz onartutzat ematea, erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

EH-BILDU eta O.ORAIN taldeek puntu hau, aurrekoa bezala, mahai gainean uzteko eskatzen dute.

**Puntua mahai gainean uzteko bozketa egin da.**

Bozketa


Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 8 (EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 5 (EAJ/PNV)

Abstentzia: 0





**Beraz, gaia mahai gainean geratzen da**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

**10.- EIOZen hobaria (Eraikuntza, Instalazio eta Obren Zerga).**

Proposamena

Eraikin, Obra eta Instalazioen Zerga Arautzen duen Ordenantzaren berri ematen da. Ordenantza horren 8-1º artikulua ezartzen duenaren arabera, interes berezikoak diren edo udal erabilerarako interesgarriztat jotzen diren eraikin, instalazio eta obrei zergaren kuotan % 95eko hobaria eman ahal izango zaie gehienez, beti ere izendapen hori arrazoitzeko behar adina ezaugarri sozial, kultural, historiko-artistiko eta enplegu-sustapenekoak baleude.

NEKAZARITZA SINDIKATUA saltokiak hobari hori eskatu du.

Uztailaren 15/1989 Eraikuntza, Instalazio eta Obretako Foru Arauko 5.1.a) artikulua arabera, (martxoaren 19ko Herri Zergen Sistema berritzeko 4/2003 Foru Arauak aldatutakoa), hobariak hartzeko aukera duten interes edo erabilera publikoko izendatzea dagokio Osoko Bilkurari.

2018ko martxoaren 19ko Tokiko Gobernu Batzordeak GOIERRIKO NEKAZAL KOOPERATIBAREN aldeko EIOZren hobaria proposatu zuen irabazi asmorik gabeko nekazaritzako kooperatiba bat delako eta gainera, bere abiatzetik laster 100 urte beteko direlako.

Eta krisialdietan lana sustatzeko neurri bultzatzaile bezala, merkataritza-sektoreari ere eragiten diena.

2018ko apirilaren 18ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak hobariaren aldeko irizpena eman du honako egoera hauek ematen direlako:

Hori ikusita,

AKORDIO PROIEKTUA.

**1.- GOIERRIKO NEKAZAL KOOPERATIVA saltokian egingo diren lanen aparteko garrantzia edo udal-onura adieraztea.**

**2.- Aipatutako obrei ematea Eraikin, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren %95eko hobaria.**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:


Alkate jaunak

Zertan datzan eta hobaria zergatik proposatzen den azaltzen du.

Zergaren ehuneko 95eko hobaria proposatzen da.

Sukia andreak

Alde bozkatuko dutela esan du, baina hobari horrek suposatzen duen gutxi gorabeherako zenbatekoa zein den jakitea gusatatuko litzaiokeela.



Alkate jaunak

Erantzuten dio 3000 euro, gutxi gorabehera.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

**11.- San Jose Egoitzako eraikinaren eta lursailen desafektazioaren espedienteri hasiera emateko proposamena.**

Proposamena

Aintzat harturik 12/2008 Legeak, abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzkoak xedatzen duela adinduentzako egoitza-etxeetako gizarte zerbitzuak eskaintzea eta betetzea Foru Aldundien gizarte-zerbitzuei dagokiela, bai eta, hala badagokie, Autonomia Erkidegoaren eremuko gizarte-zerbitzuei ere, aipaturiko legean ezarritako eskumen-banaketarekin bat etorrira.

(Hori ikusita eta) Aintzat izanik Gipuzkoako Foru Aldundia eta Ordiziako Udala eskumen horien eskualdaketa ari direla kudeatzen, zeinak egun arte Udalak garatu baititu.

Aintzat hartuz eskumenaren eskualdaketak zerbitzua emateko erabiltzen diren lursailen, eraikinaren eta instalazioen besterentzea eta lagapena eskatzen duela.

Ikusirik, derrigorrezkoak diren txosten juridikoa eta kontu-hartzailtzakoa.

Aintzat izanik, besterentzea beharrezkoa dela Gizarte Zerbitzuetako legeria betetzeko.


Aintzat izanik ondasunak herri zerbitzurako egotzita daudela eta, horrenbestez, herri-jabaria dutela, ezin dira besterendu alde zuzenetik xedegabetzen ez badira.

2018ko apirilaren 18ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROPOSAMENA

**Lehen: Onartzea, hasierako izaeraz, udal Inbentarioan San Jose Egoitzari atxikita ageri diren lurzoru eta eraikinen xedegabetzea, bere herri-jabariko izaera aldatuz eta ondarekoa bihurtuz, Gipuzkoako Foru Aldundiari lagatzeko. Zerbitzu hori GFAk emango du, administrazio biek sinatzen duten hitzarmeneko zehaztapenen arabera.**

**Bigarrena: Berdin, hasierako izaeraz eskuratzea ere, formalki, xehetasunetan azalduko higiezia Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduan, 8.3. artikuluan, xedaturikoarekin bat etorriz .**



## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

**Hirugarrena:** Bere izaera juridikoa aldatu ondoren aldaketa hori inbentarioan bereziki idazpetzea, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduaren 34. artikuluan xedatuarekin bat etorriz. eta kalifikazio berria egokitzea dagokion Jabetza Erregistroan.

**Laugarrena:** Hilabetez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko Iragarki Taulan eta webgunean xedegabetzearen espedientea jendaurrean jartzea, interesatu guztiek espedienteaz azter dezaten eta egoki iritzitako nahi beste alegazio eta iradokizun aurkez dezaten.

**Bosgarrena:** Jendaurrean agerian jartzeko epea amaituta, alegazio edo iradokizunik ez bada aurkeztu, xedegabetzea behin betiko onartutzat emango da, erabaki berri bat hartzeko beharrik gabe.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jaunak

Esan du, aurreko Osoko Bilkuran, Zaharren Egoitzaren eskumena Foru Aldundira eskualdatzeko hitzarmena onartu zela eta eskualdatze hori gauzatzeko eman behar diren pausak jarraituz, lursailak, eraikina eta zerbitzuari atxikitako instalazioak doan laga behar direla. Baina alde aurretik, ondarearen desafektazioa egin behar dela "jabetza publikoko" izaeratik.

#### Maiza adereak

Esan du, dagoeneko, aurreko Osoko Bilkuran inbentarioaren gaia aipatu zuela. nabarmentzen du komenigarria izango litzatekeela alderdi politiko guztiei esatea zeintzuk izango diren banaketaren ostean, Aldundiari lagatuko zaizkion lursailak.

#### Alkate jaunak

Erantzuten dio lagatuko diren lursailak zerbitzuari atxikitakoak direla.

#### Sukia andereak

Esan du uste duela lursail horiek, bere garaian, pertsona batek helburu zehaz batzuekin eman zituela dohaintzan. Jakin nahi du ia baldintza hori badagoen eta horrela bada, dohaintza-emaileak zehaztutako helburuak mantentzeko eskatzen du, bai banatutako lursailetan, baita lagatuko ez direnetan ere.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)


Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.



**12.- Diru-sarrerak Bermatzeko eta jendarte inklusiorako udal-laguntzen Araudiaren hasierako onarpena.**

Proposamena

Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntza emateko oinarrien berri ematen da.

Horrez gain, lege-proiektu edo araudia egin aurretik, 2018ko Martxoak 5ean, Udaletxeko web orrian argitaratu da izapidea betetzeko espedientearen hasiera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 legearen 133. artikulua ezartzen duen bezala.

Horretarako eman den epean ez da ez iradokizunik, ez oharri, ez alegaziorik aurkeztu.

2018ko apirilaren 12ko Gizarte Zerbitzuak, Aniztasuna, Kooperazioa eta Osasuna Delegazioko aldeko irizpena.

2018ko apirilaren 18ko Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

- 1.- Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntza emateko oinarriari hasierako onarpena ematea ( dagokion testua erantsita dago).**
- 2.- Oinarriak jendaurrera zabaltzea iragarki taulan eta Gipuzkoako aldizkari Ofizialeko iragarki bidez 30 eguneko apean, interesatuei erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko aukera emateko, eta Udalak ebatziko ditu iradokizun hauek.**
- 3.- Erreklamaziorik ez balego, akordio berririk gabe Oinarriak behin betiko onartuko dira**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jaunak


Azaltzen du araudian dauden laguntzak aspalditik existitzen direla, baina orain arte Gizarte Zerbitzuen Sailaren irizpide teknikoaren arabera eman direla. Horregatik, arautu nahi izan dira, eskatzaileek eta onuradunek babes juridiko handiago bat izan dezaten.

Gainera, urte hauetan zehar, REG-ari heldu ezin izan dioten hainbat kasu antzeman direla (ezarritako baremotik pasatzen zirelako), baina hala ere, bazterketa arriskuan zeudela.

Araudi horren helburua erabiltzaile-profil hori barne hartzea da.

Sukia andreak

Esan du hemezortzigarren artikulua diru-laguntzen xedea arautzen duela eta horien artean, hipoteka-maileguaren amortizazioa aurreikusten dela. Proposamenaren alde bozkatuko dutela, baina uste du diru publikoarekin zerbait pribatua ari dela diruz laguntzen, eta egokiena laguntza mota horiek mikroredituen bidez ematea izango litzatekeela eta ez fondo galdura.



Dubreuil jaunak

Esan du proposatzen den araudian Eusko Jaurlaritzaren irizpideak jarraitu direla eta gaineratzen du, helburu horretarako bideratzen den zenbatekoa oso txikia dela eta egoera zehatzaren aurretiko azterketa eta diagnostikoari baldintzatuta dagoela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

**13.- "Arana 6" HIEko a.20.6.1. lursailaren Plan Bereziaren behin betiko onarpena.**

Proposamena

Ordiziako Plangintza Arau Subsidiarioen "H.I.A. 6-Arana"ko a.20.6.1 lursailari dagokion Hiri-Antolamenduko Plan Berezia onartzeko bideratu den espedientea berri ematen da, Udaletxeak sustatuta eta Juan Manuel Saez, Udal Arkitektoa idatzia.

2017ko ekainaren 23ko 519. zenbakiko Alkatetza Dekretuaren hasierako onarpenarekin jendaurrera zabaldu zen legeak ezarritako epean eta moduan, Udaletxeko iragarki-taulan argitaratutako iragarki bidez, 2017ko uztailaren 3ko 126 zenbakiko GAOn, eta 2017ko abuztuaren 31eko egunkarian, eta ez dute alegaziorik aurkeztu.

2017ko azaroaren 15ko Obra eta Hirigintza Delegazioaren aldeko erabakia ikusita, eta behin betiko onartu beharreko 2017ko azaroaren 14ko Udal Arkitektoaren txostena ikusita, baita ere 2018ko apirilak 18ko Osoko Bilkurarako Gaiien Batzordearen aldeko irizpenarekin, ondorengo erabakia hartu du:

AKORDIO PROIEKTUA

**1.-"H.I.A. 6-Arana"ko a.20.6.1 lursailari dagokion Hiri-Antolamenduko Plan Bereziaren 2017ko azaroako zuzendutako agiria behin betiko onartzea.**


**2. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onartu den akordioa, testu arauemaile osoa barne, eta Gipuzkoako Foru Aldundian jakinaraztea hamar eguneko epean.**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak

Azaltzen du zein den Plan Bereziaren onarpenaren xedea: lursaila gaur egun ezarrita daukan bizitegi-erabileratik hirugarren sektoreko erabilerara edo ostatu-erabilerara aldatzea da.



### Bozketa


Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

**14.- Filipinak kaleko 6. zenbakia duen orubearen eta eraikinaren besterentzea. Baldintza ekonomiko-administratiboen agiriaren onarpena.**

### Proposamena

2018ko apirilaren 2018ko apirilak 23ko data duen Alkatezaren Erabakiaren berri ematen da, non Filipinak kalean, 6. zenbakian, dagoen orubearen eta eraikinaren (Ondasun Higiezinaren Udal Inbentarioan ondare izaera duena) besterentze espedientearen bideratzea zuzentzen den.

Udaletxe honek, aspalditik, udalerrian hotel-establezimentu batek ekar dezakeen onuraz hausnartu du. Izan ere, gaur egun, horrelakorik ez dago eta udalerraren garapen ekonomiko eta sozialean positiboki eragin dezake.


Horregatik, aipatutako erabakia ikusita, honako txosten hauek igorri dira:

- a) 2018ko apirilaren 16ko data duen udal Arkitektoaren txostena, besterenduko den ondasunaren balorazio teknikoari edo balio justuari buruzkoa. Bertan ere, besterenduko diren ondasunen hirigintza-ezaugarriak agertzen dira, baita indarrean dagoen planeamenduaren arabera, bere sailkapenarena eta kalifikazioarena ere.
- b) 2018ko apirilaren 19ko data duen Idazkariaren txostena, besterentzeari ezarri beharreko legeriari buruzkoa eta baita jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa ere.
- c) 2018ko apirilaren 19ko data duen Kontu-hartzailearen txostena, Aurrekontuaren ohiko baliabideei buruzkoa.

Halaber, besterentze espedientearen dokumentu hauek gehitu dira:

- Ondasuna tokiko erakundearen ondare-ondasun gisa behar bezala inskribatuta dagoela ziurtatzen duen Jabetza Erregistroaren informazio-ohar soila.
- Idazkariaren ziurtagiria, Ondasunen Udal Inbentarioan, Ondasunak duen ondare-izaera ziurtatzen duena.
- Ondasunaren balio justua egiaztatzen duen Balorazio Teknikoa. Era berean, besterenduko diren ondasunen hirigintza-ezaugarriak ere agertzen dira, baita indarrean dagoen planeamenduaren arabera, bere sailkapenarena eta kalifikazioarena ere.

Halaber, Baldintza Ekonomiko-Administratiboaren Agiria egin da, aipatutako ondasunaren jendaurreko enkante bidezko esleipena arautzea xede duena.



## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

Horregatik guztiagatik, besterentze espedientearen onarpenari hasiera eman nahi zaio, baita baldintza ekonomiko-administratiboen agiriaren onarpenari ere, organo eskudunak jendaurreko enkante bidezko esleipena egin dezan. Eskumenari dagokionez, jakinarazi behar da Bigarren Xedapen Gehigarriak, 9/2017 Legearen 9. Atalaren arabera, tokiko erakundeen Sektore Publikoko Kontratueta tokiko erakundeko Alkateari edo Lehendakariari dagokiola kontratu pribatuak egiteko eskumena, baita ondasun higiezinaren erosketa eta ondare-legeriari baldintzatutako eskubideak ere; beti ere, esleipenaren oinarri-aurrekontuak ez badu aurrekontuaren ohiko baliabideen ehuneko 10a gainditzen, ezta 3.000.000 euroko zenbatekoa ere; halaber, ondasunaren besterentzea ere badagokio, beti ere, bere balioak adierazitako zenbatekoa edo ehuneko ez duenean gainditzen.

Hau da, onespenez hori egiteko eskumena Alkateari dagokiola ondasuna 393.797 euroan baloratuta dagoelako. Dena den, Alkateak Osoko Bilkuraren gain utzi nahi du onespenezaren erabakia, uste duelako gai-zerrendaren aurreko puntuarekin erlazionatuta dagoela eta baita akordioari babes handiago bat emateko ere.

Besterentzearen prezioak ez du aurrekontuaren ohiko baliabideen ehuneko 25a gainditzen. Ondorioz, besterentze horrek ez du Foru Aldundiaren derrigorrezko baimenik behar eta nahikoa da besterentze hori ostean jakinaraztea.

2018ko apirilaren 18ko Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

### AKORDIO PROIEKTUA

**LEHENENGOA.-** Jendaurreko enkante bidez Ordiziako Udalarena den ondare-ondasuna besterentzea onartzea. Ondasuna hau da:

- Filipinak kaleko 6.ean dagoen orubea; Ordiziako plangintzako arau subsidiarioetako HEE "6 ARANA" Hirigintzako esku-hartze eremuko a.20.6.1 lursaila. Azalera 179,93 m<sup>2</sup>-koa da, hirigintzako antolamendu-plan bereziaren arabera.
- Lursail horretan eraikin bat dago, gaur egun erabilenarik ez duena. Bi solairu eta erdisoto bat ditu. Aipatu Plan Bereziaren aprobetxamendu berrietarako ordezkaturiko da eraikina.
- Katastroko erreferentzia: 6767025. 118467 U finka.
- Erregistroko erreferentzia: Tolosako jabetza-erregistroa, 163. liburukia, 87. orria, 55. Finka.
- Izaera: ondare-ondasuna.


**BIGARRENA.-** Baldintza ekonomiko-administratiboen agirian (idazki honi atxikia) jasotzen den besterentze-espedientea onartzea. Baldintza horiek enkante bidez egingo den besterentze hau arautuko dute. Izapideak arruntak izango dira eta prozedura irekia. Licitazio-prezioa 393.797 euro da. Horretarako prozedura irekitzen da honako honen bitartez.

**HIRUGARRENA.-** Indarrean dagoen araudiaren arabera, ondasunak hirugarren sektoreko erabilera izango du; hau da, ostalaritzako erabilera.

**LAUGARRENA.-** Enkante bidezko lizitazioaren iragarkia GAO-n argitara ematea.

**BOSGARRENA.-** Gipuzkoako Foru Aldundira ondasunaren besterentze-espedientea bidaltzea, jakinaren gainean egon daitezkeen.

**SEIGARRENA.-** Besterentzako den ondasuna udal-lurzoru ondarea dela kontuan hartuta, besterentze horretatik lortuko diren baliabideak legeriak halako ondaretarako ezartzen dituen xedeetarako erabiliko dira.



## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

**ZAZPIGARRENA.- Akordio hau alkatetzaren borondatez espresuki osoko bilkuraren hausnarketaren baitan jartzen bada ere, lurzatia esleitzeko edo besterentzeko eskumena legez eskumen hori daukan organoari dagokio; hau da, alkateari.**

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jaunak

Esan du puntu hau aurrekoarekin lotuta dagoela eta Plan Bereziaren onarpenaren ostean (lursaila hirugarren sektoreko erabilerarako edo ostatu-erabilerarako kalifikatzen duena), lursailaren besterentzea, enkante publiko bitartez, adostu behar dela.

Halaber, proposamenak ondarearen besterentzea zuzenduko duen baldintza ekonomiko-administratiboen agiriaren onarpena barne hartzen du.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0


**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

<b>23ORDIZIAKO UDALA</b>		
<b>PRESAZKO INBERTSIOAK 2018 AUR.</b>		
1 601.02.153.20.0222 2018	OKORRO(JAKINTZA IKASTOLATIK OKORRO KALERA)	65.862,42
1 622.01.153.20.0222 2018	KZ GUNEA ETA ARTXIBATEGIA	60.000,00
1 643.01.153.40.0224 2018	URDANETAKO BERRIKUNTZA 64TIK ZENBAKIA BUKAERAINO	15.000,00
1 623.04.163.00.0281 2018	TRESNAK ETA ERREMINTAK. GARBIKETA	28.978,71
1 601.01.170.00.0251 2018	ASIALDI BARATZAK	15.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>184.841,13</b>





**KAPITAL TRANSFERENTZIEN ERANSKINA 2018**

1 733.01.341.00.0161 2018	APORTACION INVERSIONES. MAJORI	295.000,00
1 733.02.341.00.0161 2018	APORTACION INVERSIONES. MAJORI 1ª FASE	172.000,00
	<b>GUZTIZKOA</b>	<b>467.000,00</b>

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak

Azaldu du hainbat inbertsio onartzea proposatzen dela premiazkoak diren ekintzek edo proiektuek aurrekontu-partida bat izan dezaten; izan ere, aurrekontu-proiektua atzeratzen ari da, aurreko ekitaldia ixteari eta zegoen soberakinari buruz izandako hainbat zalantzaren ondorioz.

Inbertsio horiek zein diren zehatz-mehatz azaldu ditu.

**Lehenbizi, puntua gai-zerrendan sartzeko bozketa egiten da:**

Bozketa

Aldeko botoak:13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

Ezenarro jaunak

Inbertsioak banan-banan bozkatzea proposatu du.

Inbertsio guztiei aldeko bozka ez dietela emango esan du.

Oraindik ez da aurrekontu-proiektua ezagutzen, eta aurretik esan izan duten moduan, 2016an onartutako zenbait inbertsio (gauzatu gabeak) desagertu egiten dira. Ez daude amore emateko prest.


Esan du 2018.05.11rako aurrekontu bat adosten eta onartzen saiatzeko prest daudela.

Okorro eta Urdaneta kaleak berrurbanizatzeari dagokionez, oraindik ez dute proiektua ikusi (txosten teknikoa jaso badute ere), eta, gainera, haren iritziz inbertsioetarako Ur Partzuergoarekin adostutako baldintzak begiratu egin beharko lirateke.

Aldeko bozka emango diete aisiarako baratzeei.

Ez dute KZ Gunearen eta artxibategiaren erreforma onartuko.

Bera, hala eskatuta, teknikariarekin egon da, baina ez du gaiari buruzko behar besteko informaziorik jaso. Kontuan izanik proposatzen den inbertsioa 60.000 euro dela, eta artxiboaren kokapenak ez dirudiela egokiena. Artxiboa udaletxera hurbildu beharra dago.



## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

Osasun-zentroa handitzeari dagokionez, ez daki zein diren handitze horren baldintzak, ez dakite hitzarmenik dagoen, ezta handitze hori nahikoa izango ote den ere zentroaren premiak asetzeko.

Majorin egin nahi diren inbertsioei dagokienez, badakite inbertsioa egiteko laguntza batzuk hitzartuta daudela, baina proiektua zertan den jakin nahiko luke. Proiektua ezagutzeko aukera izan zuenean, proiektu hori berrikusi beharra zegoela eta lanak lau fasetan banatuko zirela esan zitzaion. Orain, ordea, aurkeztutako proiektuak bi fase izango ditu, eta 3.000.000tik gorako inbertsioa. Galdetu du zenbateko zorpetze-gaitasuna dugun.

Ez dakigu zehatz-mehatz zenbatekoa den proiektuaren kostua. Lehen faseak 1.250.000 euroko kostua dauka. Haren iritziz, urratsak ematen hasi beharra dago, baina, jakin beharra dugu zeri heldu behar diogun.

### Alkate jaunak

Esan du, oraintxe arte ez duela jakin eta ez duela entzun prest zeudela 1.400.000 euroko lehen fase bat onartzeko. Esan du kirol-azpiegituren mahaia duela urtebete osatu zela, eta denbora-tarte horretan gaiari buruzko informazioa eman dela. Esan du, halaber, proiektua idatzi duen arkitektoa bera ere bileraren batean egon dela, proiektuaren berri emateko.

Kredituari dagokionez, hiru urterako konpromisoa dela esan du, baina horrek ez du esan nahi 2,3 milioi euroko kreditua eskatu beharra dagoenik.

Prozedurari dagokionez, baldintza-agiria landu beharra dagoela esan du. Gainera, berriki indarrean sartu den kontratazio publikoari buruzko araudira egoki beharra dago, eta, horrez gain, zorpetuko bagara, plan ekonomiko finantzario bat onartu beharra dago. Alegia, prozedurak 6 hilabete iraun dezake, gutxi gorabehera.

Laguntza, guztira, 370.000 euro da.

Osasun-zentroari dagokionez, esan du zentroaren arduradunek lokalak lagatzearen premia helarazi diotela udalari, beraiek azaldutako argudioekin, eta alderdi politikoei banatu zaiela.

Mediku-kopurua bikoiztu egin da, eta ez dute lekurik. Hortaz, gaixoei arreta egiteko baldintza duinak eskatzen ari dira.

### Ezenarro jaunak


Berrir esan du Majoriren kasuan konpromisoa hartuko dutela ez daudelako horren aurka, baina bidea luzea dela eta hitzartutako laguntza 370.000 euro dela. Lehen fasean, soilik lehenean, egin beharreko inbertsioa 1.200.000 euro da. Lanei heltzeko onespina eman die, ez ordez une honetan bertan 3.000.000 euroko konpromisoari. Gai asko ditugu esku artean: diru-sarrerak, Filipinak 6 lurzatiaren besterentzea, Lukusineko garajeen salmenta, eta abar.

KZ Guneari buruz esan du informazioa falta dela.

Majoriko inbertsioaren lehen fasearekin konpromisoa hartuko dute, baita Okorro eta Urdaneta kaleak berrurbanizatzearekin ere, betiere aurrez informazio gehiago jasotzen badute.

### Alkate jaunak

Berrir ere esan dio orain arte ez zuela entzuna lehen fasearekin ados zeudenik, eta hala bada, zergatik ez da adostu ezinbestekoak diren aurretiko lanak aurreratzea?



## Ordiziako Udala

2018IOSB0004

### Ezenarro jaunak

Hala dela esan du, baina ez direla 3 milioi euroko zorra hartzera konprometituko, gainerako dirua nondik aterako den jakin gabe.

Majori erabat berritzeko proiektuaren aldekoak direla esan du, baina haren iritziz lasterketa hau iraupen luzekoa da, eta zer kostako zaigun jakin gabe ezin duela konpromisorik hartu. 1.200.000 eurorekin hastea berez konpromiso handia da.

### Alkate jaunak

Nahiago du 1.500.000 euroko konpromisoa hartu eta alde zuzeneko lanei heldu.

### Ezenarro jaunak

Lanei heltzearekin ados dagoela esan du, baina ezinbestekoak dira guztiok mahaiaren inguruan esertzea eta gauzak elkarrekin adostea. Aurrekontu-proiektua gehienez ere hilabeteko epean prest egotea espero du.

Jarraian, inbertsio bakoitza, banan-banan, bozkatu da.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

#### 1.- Okorro kalearen berrurbanizazio lanak.

### Bozketa

- Aldeko botoak: 6 (EAJ-PNV 5, PSEE-PSOE 1)
- Kontrako botoak: 7 (EH-BILDU 5, O.ORAIN 2)
- Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena baztertutzat jotzen du.**

#### 2.- KZ Gunearen eta Artxibategiaren erreforma lanak

### Bozketa

- Aldeko botoak: 6 (EAJ-PNV 5, PSEE-PSOE 1)
- Kontrako botoak: 7 (EH-BILDU 5, O.ORAIN 2)
- Abstentzia: 0


**Alkate jaunak ondorioz, proposamena baztertutzat jotzen du.**

#### 3.- Urdaneta kalearen berrurbanizazioa

### Bozketa

- Aldeko botoak: 6 (EAJ-PNV 5, PSEE-PSOE 1)
- Kontrako botoak: 7 (EH-BILDU 5, O.ORAIN 2)
- Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena baztertutzat jotzen du.**



#### **4.- Aisialdi baratzak**

##### Bozketa

- Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH BILDU 5, O.ORAIN 2 , PSE-EE (PSOE) 1)
- Kontrako botoak: 0
- Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena aho batez onartutzat eman du.**

#### **5.- Majoriko inbertsioetarako ekarpena (belar artifiziala, sauna eta markagailuak)**

##### Bozketa

- Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, EH BILDU 5, O.ORAIN 2 , PSE-EE (PSOE) 1)
- Kontrako botoak: 0
- Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena aho batez onartutzat eman du.**

#### **6.- Majoriko I. faserako inbertsioetarako ekarpena**

##### Bozketa

##### Alkate jaunak

Puntu horretan esan du inbertsioa onartzeak berarekin ekarriko dituela ondorengo kreditu-konpromisoak:

- 1) 1.500.000 euroko konpromiso-kreditu bat onartzea 2019rako.
- 2) 1.328.000 euroko konpromiso-kreditu bat onartzea 2020rako.

Honela finantzatuko da:

- 1) 1.326.000 euroko mailegua, Aldundiaren 100.000 euroko diru-laguntza, eta Eusko Jaurlaritzaren 74.000 euroko diru-laguntza igogailua jartzeko (2019ko ekitaldirako).
- 2) 1.133.000 euroko mailegua eta Aldundiaren 195.000 euroko diru-laguntza (2020ko ekitaldirako).

- Aldeko botoak: 6 (EAJ-PNV 5, PSEE-PSOE 1)
- Kontrako botoak: 7 (EH-BILDU 5, O.ORAIN 2)
- Abstentzia: 0


**Alkate jaunak ondorioz, proposamena baztertutzat jotzen du.**

Ondoren, alkateak beste inbertsio bat bozkatzea proposatu du. **Batzarkide guztiek bozketa hori gehitzea onartu dute.**

#### **7.- Oianguko galdara-gelaren mantentze-lana**

##### Bozketa

- Aldeko botoak: 11 (EAJ-PNV 5, EH-BILDU 5, PSE-PSOE1)
- Kontrako botoak: 2 (O.ORAIN)
- Abstentzia: 0



**Ordiziako Udala**

2018IOSB0004

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena gehiengoz onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

**15.- Galderak eta eskaerak.**


Ez dago.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.

ALKATEA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA



En Ordizia siendo el día **3 de mayo de 2018** se reúne en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial el AYUNTAMIENTO PLENO EN Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:

**ASISTENTES:**

**PRESIDENTE:**

Dn. José Miguel Santamaría Ezeiza

**CONCEJALES PRESENTES:**

Joseba Aranburu Gauzarin	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos

**SECRETARIA:**

Dña. Lide Gurrutxaga Urbieto


**INTERVENTOR:**

Dn. Mikel Zubizarreta Elicegui

**ORDEN DEL DÍA**

**ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:**

- 1.- Aprobación del acta de la sesión plenaria celebrada el día 22 de marzo de 2018.
- 2.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía del mes de marzo.
- 3.- Reparos del Interventor sobre contratación correspondiente al mes de abril.
- 4.- Moción presentada por PSE-EE (PSOE) Ordizia, sobre las medidas contempladas en el pacto de estado contra la violencia de género.
- 5.- Propuesta de la Asociación "DUINTASUNA" Elkartea, jubiladas y Pensionistas de Gipuzkoa en relación a las Pensiones.
- 6.- Propuesta del Departamento de Servicios Sociales solicitando a Alcaldía la adhesión del escrito dirigido a GOIEKI S.A., sobre los servicios sociales de base.
- 7.- Modificación presupuestaria del Ayuntamiento previa al cierre del ejercicio 2017.
- 8.- Aprobación inicial de la Plantilla Orgánica para el ejercicio 2018.



- 9.- Aprobación inicial de la Relación de Puestos de Trabajo 2018.
- 10.- Bonificación del ICIO de las obras de GOIERRIKO NEKAZAL KOOP.
- 11.- Aprobación inicial de desafectación demanial de los terrenos y edificio de la Residencia San José.
- 12.- Aprobación inicial del Reglamento de ayudas municipales de garantía de ingresos y para la inclusión social.
- 13.- Aprobación definitiva del Plan Especial dela parcela a.20.6.1. del AIU "6-Arana".
- 14.- Pliego de cláusulas Económico-administrativas para la enajenación del solar de Filipinak kalea 6.

**ASUNTOS TRATADOS POR ORDEN DE URGENCIA:**

- 1.- Modificación presupuestaria para el ejercicio 2018 de aprobación de inversiones con carácter de urgencia

**ASUNTOS TRATADOS EN RUEGOS Y PREGUNTAS:**


**INCIDENCIAS**

**HORARIO**

**HORA INICIO: 19:00 horas.**

**HORA FINAL: 21,20 horas.**





Abierta la sesión por parte del Presidente, se da lectura al primer punto del orden del día.

**1.- Aprobación del acta de la sesión ordinaria de fecha 22 de marzo de 2018**

Propuesta

**Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria celebrada el día 22 de marzo de 2018**

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen: ninguna.

Votación

Realizada la votación ofrece ésta los siguientes resultados:

Votos a favor: 13 (EAJ 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Votos en contra: 0

Abstención: 0

**Declara en consecuencia el Sr. Alcalde aprobada el acta por unanimidad.**



A continuación por parte del Sr. Alcalde se da cuenta del siguiente punto.

**2.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía del mes de marzo**

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Sr. Ezenarro

Solicita información sobre el Decreto nº B18/0286 “gai puntualak”

Sra. Sukia

Pregunta sobre el decreto Nº B18/0225 “instalación de ascensor en P-21”

Sr. Alcalde


Les informa.

**El Ayuntamiento pleno queda enterado.**




A continuación por parte del Sr. Alcalde se da cuenta del siguiente punto.



**3.- Reparos del Interventor sobre contratación correspondiente al mes de abril****NOTA DE REPAROS DEL INTERVENTOR (04/2018)** . Ordizia a 24 de abril 2018

El Departamento de Secretaría da cuenta al interventor de los siguientes contratos que están fuera de plazo:

Razón social	Objeto del contrato	Contrato	Vto plazo ejecución	Prórrogas	Precio del contrato	Gastado 2016
Gesmunpal	Recaudación ejecutiva	03/11/2003	03/11/2007	---	Variable	30.943,58
Juan M. Garmendia Amundarain	Conserje Casa de cultura	15/04/1986	Indefinido	Prórroga anual	Importe 2016: 2.948,84+ IVA mensual	42.817,20
Landarri S.L.	Servicio de cementerio	10/03/2005	10 años 10/03/2015	Decreto prorroga hasta nueva adjudicación Vto:12/03/2016	Precio máximo 18.000 euros + IVA	21.937,30
Eulen Sociosanitarios	Servicio Ayuda Domiciliaria	24/12/2010	Máximo 5 años 24/12/2015	Prórroga anual hasta nuevo contrato	Según tarifas	140.409,78
Lorratz Elkartea. Arantxa Zabaleta Imaz	Servicio público de intervención socio-educativa en medio abierto con jóvenes y menores en situación de riesgo.	27/04/2012	Máximo 4 años. 27/04/2016	Prórroga anual hasta nuevo contrato	Precio contrato: 60.000 euros IVA incluido. Precio 2016: 65.529 euros IVA incluido	63.806,72
Erro Koop. Elkartea. Leire Andia	Gestión centro D'Elikatuz	24/07/2012	Máximo 4 años. 27/04/2016		Precio contrato: 90.000 euros IVA incluido.	102.755,36
INDOK	Gestión Munigex	Sin contrato	Anual		Precio 2016: 12.196,80 euros IVA incluido.	11.243,96
LAIA S.COOP.	Agenda 21	01/04/2013	01/04/2015	Sin contrato	Precio contrato: 17.061 euros IVA incluido.	24.407,28
Ainara Ormaetxea Harto	Servicio de Inmigración	01/01/2016			21.773,95 euros IVA incluido.	21.966,02
Guardería Alotza Asociación de padres	Gestión Serv. Municipal de Escuela Infantil.	01/09/2009	Máximo 6 años 01/09/2009		Ver contrato. Tarifas+subv +contr prestación Ayto de 33.500	388.104,44



